



(http://hernanikokronika.tumblr.com/)

(/)

HERNANI (/albisteak/hernani/)	GOIZUETA (/albisteak/goizueta/)
ARANO (/albisteak/arano/)	EREÑOTZU (/albisteak/erenozu/)
ASTIGARRAGA (/albisteak/astigarraga/)	
Albisteak (/albisteak/astigarraga/albisteak/)	Elkarrizketak (/albisteak/astigarraga/elkarrizketa/)
Jasota Bezala (/albisteak/astigarraga/jbezala/)	Bereziak (/albisteak/astigarraga/sberezia/)
Herritarren txokoa (/albisteak/herritarrentxokoa/)	Eskelak (/eskelak/)
	Agenda (/agenda/)
	Bideoak (/bideoak/)
	Argazkiak (/argazkiak/)

Q	Idatzi bilaketa hitza(k)	Bilatu
Publizitatea (/static/pdf/publizitatea.pdf)	Bazkide egin (/albisteak/astigarraga/bazkide-egin/)	Hemeroteka (/hemeroteka/)



(/m/albisteak/argazkiak/None/barruan/140924sagaruzta.jpg)

albisteak//XIV. SAGAR UZTA JAIA

Aurtengo berrikuntzak: mendi buelta familian eta erronka

Sagar Uzta jaia ospatuko da bihartik igandera. Egun hauetan zehar, hainbat ekintza antolatu dira: pintxo potea, kata gidatua, mendi buelta, erronka, sagar tarta eta argazki lehiaketak...

ASTIGARRAGA

2014/09/24 00:00 Asteazkena

Hamabosgarren urtez, Sagar Uzta jaia antolatu du Sagardoetxeak. Bihar hasiko da eta igandera bitarte hainbat ekintza izango dira. Eta baita bi berrikuntza ere: mendi buelta familian eta Sagardo Bide erronka. Egun nagusia, igandea izango da.

Mendi buelta, larunbatean

Sagar motak ezagutuz izeneko mendi buelta antolatu dute larunbatean. Familian egiteko izango da, haur eta helduak batera. Josu Osarekin, Sagardo Bidean zehar dauden sagastie-ta sagar barietateak ezagutu eta probatuko dituzte. Parte hartzeko, izena eman behar da.

Erronka, igandean

Sagardobide erronka igande goizean izango da. Bi neska eta bi mutilez osatutako 6 taldek (Gurutseta, Alorrenea, Petrategi, Zelaia, Astarbe, Zapiain), Sagardo bidea egingo dute erreleboka (ibilbideak, 5-6 km). 4 buelta egingo dituzte denera: mutilak bizikletan, neskak korrika, neskak bizikletan eta mutilak korrika.

Ikustera eta animatzera gerturatzeko dei egin dute antolatzaileek eta Santiomendiko igoera, ikusteko polita izango dela azaldu dute. Ibilbidea: Foru plaza (udaletxea), Plaza etxe, Santiomendi, Ermaña, Kaxkarre, Artola eta Foru plaza.

Gaur	Bihar	Etzi
max:18C° min:14C°	max:16C° min:14C°	max:20C° min:11C°
(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)		
(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)Aemet		
(http://www.aemet.es) eskaintako datuak		

ASTIGARRAGA



(/m/albisteak/argazkiak/None/barruan/140924sagaruzta.jpg)

/Irailak%2024%20internet.pdf)

Irailak 24

HERNANI



(/m/albisteak/argazkiak/None/barruan/140924sagaruzta.jpg)

/Irailak%2024%20internet.pdf)

Irailak 24

Zenbat pisatzen du zakuak?

AEK euskaltegiak postua jarriko du igande goizean, Foru plazan. Bertan, Sagar zaku lehiaketa egingo dute, hau da, sagarrez betetako zaku baten pisua asmatzen duenak saria izango du. Horrez gain, ikasturte berrirako informazioa egongo da, eta sagardoa eta gazta.

EGITARAUA**Bihar**

19:00-21:00 Pintxo-potea tabernetan. Sagarren eratorriekin egindako pintxoak emango dira.

Ostirala

19:00 Euskal Herriko sagarren kata gidatua* Astigarragako Roxario Jatetxean.

Larunbata

09:30 "Sagar motak ezagutuz", Santiomendiko Sagardo Bidean mendi buelta familian*.

Igandea

SAGARRAREN JAIA Foru plazan.

09:00 I. Sagardobide Erronkaren irteera. Santiomendiko sagardotegien arteko errelebo proba.

10:30-12:00 "Sagardogintza gure baserrietan" erakusketa frontoian.

10:30-12:00 Sagar tarta lehiaketarako tartak entregatzea frontoian*.

10:30-12:00 VII. Sagar

Uzta Argazki Rally Digitalean

izen-enameak frontoian*.

11:00-13:00 Gazta dastaketa gidatua*.

11:00-13:30 Haurrentzako

tailerrak eta jolasak.

11:00-14:00 Sagarraren azoka:

- Sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta.

- Sagardo dastaketa.

- Saski, txertaketa... erakustaldiak.

- Herriko baserritarren produktuen salmenta.

- Muztio dastaketa herrian zehar trikitilariekin.

11:00 2014 uztako lehen

muztioaren elaborazioa.

Sagar biltzea,

jotzea eta zanpatzea.

12:30 Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00 Txalaparta eta urteko lehen muztioaren dastaketa.

13:30 Haurrentzako sagargintza proba.

14:00 Sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria Gure Izarra elkartean.

* Izen-enameak: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com

Tweets Follow


Urumeako Kronika
 @KronikaNet 17m
 Astigarragako txistulariak, Iruñian
[#astigarraga](#) [#txistulariak](#) [dlvr.it/70YSx8](#)


Urumeako Kronika
 @KronikaNet 49m
 Gaur iritsiko dira Angel Olanan eta
 Wukroko gazteak [#hernani](#) [#wukro](#)
[#elkartasunjardunaldiak](#) [dlvr.it/70Xgx1](#)


Urumeako Kronika
 @KronikaNet 49m
 Euskaltegien ikasturtea martxan eta
 apuntatzeko aukera oraindik
[@hermanikoudala](#) [#hernani](#) [#euskaltegiak](#)
[dlvr.it/70Xgwp](#)


Urumeako Kronika
 @KronikaNet 1h
 Batzarra, gaur [#astigarraga](#) [#udala](#)
[dlvr.it/70WsZD](#)


Urumeako Kronika
 @KronikaNet 1h
 Euskal zinemaren distira [#zinemaldia](#)

Tweet to @KronikaNet

Sartu

Tweet 1

Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Bidali

Aurreikusi

Azken argazkiak



Goizueta festak (igandea)



Goizueta festak (larunbata)

Azken bideoak



David Fernandez - CUP Alderdia



Budyren hitzaldia



Astigarragan, zaharrei omenaldia

ARGITARATZAILEA

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

ZEIN GARA

URUMEAKO
kronika

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120

Telefonoa: 943 33 08 99

E-maila: kronika@kronika.net

Santio zeharra 8, Kiroldegia - Astigarraga 20115

Telefonoa: 688 660 714

E-maila: astigarraga@kronika.net / urumea@kronika.net

LAGUNTZAILEAK

